

**INDARBERRITZEKO ETA GIZARTE-LAGUNTZARAKO NEURRIAK  
MEDIDAS DE REACTIVACIÓN Y APOYO SOCIAL**

2022-07-28 Vitoria-Gasteiz 28-07-2022

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Ahaldun Nagusiok, Sailburuok, jaun-andreok, egun on!

Martxoaren 30ean “Erakundeen arteko 2022-2024 Inbertsio Estrategikoen Plana” adostu eta aurkeztu genuen elkarrekin.

Gaur berriro ere elkartu gara, egoeraren azterketa partekatzeko, neurri berriak adosteko eta aurkezteko. Estatuan, Europan eta mundu osoan bizi den egoeraren eta hartzen diren neurrien jarraipena partekatu ditugu. Inoiz baino gehiago ikuspegi globalek gure tokiko neurriak baldintzatzen dituzte.

Jarrera eta ekinbide hau mantenduko dugu. Azken finean, bizi dugun egoerak egonkortasuna bermatzea, indarrak elkartzea eta erantzunak eskaintzea eskatzen digu.

Pandemiak eta Ukrainako egoerak gure bizitza baldintzatzen jarraitzen dute, familietan eta jarduera ekonomikoan duten eragina mantentzen da.

Egoera horren berri izanda, honako sei neurri hauek adostu ditugu:

-Bat: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren tarifaren tarte guztiak %4 deflaktatzea. Neurri hori aurten aplikatuko da. Era berean, baterako aitortpeneko murrizketaren zenbatekoak, kuotaren gutxitzearena eta kenkariena, % 4an eguneratuko dira. Aurreko urteko urrian hartutako ehuneko bat eta erdiko deflaktazioari gehitzen zaio orain hartzen den neurri hau. Guztira beraz ehuneko bost eta erdiko deflaktazioa aplikatuko da.

- Bi: %4ko deflaktazio berri honen ondorioz, eta neurri batean aurten aplikagarria izan dadin, irailetik lan-etekinen atxikipen-taularen doikuntza onartzen da. Horrela, tarifaren deflaktazioa irailetik aurrera izango da eraginkorra.

Deflaktatzeak esan nahi du pertsona eta familia guztiek diru gehiago izango dutela poltsikoan.

- Hiru: 200 euroraino kuota-gutxitzea. Aurtengo zergaldian aplikatuko zaie 35.000 eurotik beherako zerga-oinarri orokorra duten zergadunei. 30.000 euro arte, 200 eurokoa izango da; eta 30.000 eta 35.000 euroko zerga-oinarri orokor bitartean, 200 euro hauek progresiboki jaisten joango dira.

- Lau: 11/2022 Errege Lege Dekretuaren ondorioz jasotzen diren 200 euroko laguntza publikoen salbuestea.

- Bost: Pertsona autonomoak 2022ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoen ordainketa zatikatuak aurkeztetik salbuestea.

- Sei: 50 milioitik beherako eragiketa-bolumena duten enpresak ordainketa zatikatua aurkeztetik salbuestea, betiere zerga-baterakuntzako talde batean sartuta ez badaude.

Neurri guzti hauek 250 milioi euroko ahalegin fiskala ekartzen dute. Hauetatik, 140 milioi Pertsona fisikoen Errenta ordaintzen duten pertsona guztiei laguntzeko. Beste 110 milioi Errenta ordaintzen dutenen artean zaurgarrienak diren pertsonak laguntzeko.

Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak elkarrekin ari gara lanean, bizi dugun egoera aztertzen, neurriak proposatzen eta beharrezkoak diren erantzunak partekatzen.

Gaur adostutako neurriak urrats berri bat dira.

Gure helburua da gehien behar duten pertsonak eta familiak babestea; eta, horrekin batera, jarduera ekonomikoari eta enpleguari eusten laguntzea.

Neurri berriek bat egiten dute bost esparrutan garatzen ari garen estrategiarekin:

-Bat: Covid-19ari aurre egiteko ezohiko aurrekontu-baliabideak onartu genituen.

Pandemia hasi zenetik aurtengo ekainera arte erakunde guztiek aurrekontu bereziak onartu ditugu. Eusko Jaurlaritzak 1.569 milioi euroko aparteko aurrekontu-ahalegina egin du.

-Bi: Lehentasunezko jarduketa-eremuetarako laguntza-programak mantentzen ditugu.

Krisi ekonomikoak bereziki zigortutako lehentasunezko jarduketa-eremuetarako laguntza-programetarako 180 milioi euroko aurrekontua bideratzen ari gara, foru-aldundiekin batera.

-Hiru: 250 milioi euroko inbertsio-programa berezia dugu.

Aurreko urteko amaieran onartu genuen eta inbertsio hori aurreikusitako 1.000 milioiko inbertsioari gehitu genion.

-Lau: martxoaren 30ean erakunde arteko inbertsio estrategikoen plana aurkeztu genuen.

Plan horren bidez 528 milioi euroko inbertsio-proiektuak aurreikusi genituen Jaurlaritza eta foru-aldundien artean.

-Bost: Erreskate Ekonomikorako eta Erreskate Sozialerako neurriak abian ditugu.

Apirilaren 8an Ukrainako egoerari buruzko Legebiltzarreko eztabaida monografikoan 44 ebazpen onartu ziren.

Onartutako ebazpenak aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzak, apirilaren 12ko Gobernu Kontseiluan 200 milioi euroko neurriak onartu genituen.

El Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales estamos realizando un esfuerzo de análisis y respuesta permanente a la situación que estamos viviendo.

Hoy hemos acordado las seis medidas que presento a continuación:

-Uno: Deflactar todos los tramos de la tarifa del IRPF un 4%. Esta medida es aplicable al ejercicio 2022. Se actualizan los importes de la reducción por tributación conjunta, minoración de la cuota y asimismo se actualizan las deducciones en el mismo porcentaje del 4%. Esta deflactación se suma a la aplicada a principios de año de un 1,5%, por lo que la cifra total será del 5,5%.

-Dos: Ajuste de la tabla de retenciones aplicable a los rendimientos de trabajo a partir de septiembre. De esta forma, la deflactación de la tarifa será efectiva desde ese mes.

Deflactar significa que todas las personas y familias van a disponer de más dinero en su bolsillo.

-Tres: minoración de la cuota de hasta 200 euros aplicable en las declaraciones con una Base Imponible General de hasta 35.000 euros. Las declaraciones con una Base Imponible General hasta 30.000 euros, podrán aplicar la minoración de la cuota de 200 euros. Entre 30.000 y 35.000 euros, este importe de 200 euros irá reduciéndose de manera progresiva.

-Cuatro: Exención de las ayudas públicas de 200 euros que se perciban con motivo del Real Decreto Ley 11/2022.

-Cinco: Exoneración de la presentación de los pagos fraccionados del tercer y cuarto trimestre de 2022 para las personas autónomas.

-Seis: Exoneración de la presentación del pago fraccionado para las empresas con volumen de operaciones inferior a 50 millones, siempre y cuando no estén incluidas en un grupo de consolidación fiscal.

Estas medidas suponen un esfuerzo fiscal de 250 millones de euros. Por una parte, 140 millones benefician a todas las personas contribuyentes de la renta y, por otra parte, 110 millones benefician a las más vulnerables.

Las medidas planteadas hoy son un paso más y se suman a una Estrategia compartida que estamos desarrollando en cinco ámbitos de actuación:

-Uno: Recursos Presupuestarios extraordinarios para hacer frente al Covid-19.

Desde el comienzo de la pandemia a principios de 2020 hasta el mes de junio de este año, todas las instituciones públicas hemos realizado un esfuerzo presupuestario de carácter extraordinario. En el caso del Gobierno este esfuerzo asciende a 1.569 millones de euros.

El 52% de esta inversión, 821 millones de euros, se han destinado a cubrir los gastos adicionales en Osakidetza; y otros 230 millones a Educación.

Hemos destinado 338 millones a ayudas directas a pequeñas empresas, autónomos y los sectores de cultura, turismo, comercio y hostelería. Las ayudas sociales y al empleo han contado con 90 millones adicionales; y la financiación del sector transporte 23 millones. Los otros 67 millones se han destinado al resto de servicios públicos.

-Dos: Programa de ayudas a las Zonas de Actuación Prioritaria con 180 millones de euros.

Este programa extraordinario, compartido con las Diputaciones Forales, se orienta a la realización de inversiones específicas y el desarrollo de proyectos de reactivación económica en las Comarcas de Ezkerraldea-Meatzaldea; Enkarterri; Oarsoaldea y Aiaraldea hasta 2024.

En los dos primeros años de ejecución del Plan se han puesto en marcha proyectos por importe de 135 millones de euros, el 75% del total.

-Tres: Programa extraordinario de inversión por importe de 250 millones de euros.

A finales de 2021 aprobamos un Plan extraordinario de inversiones por 250 millones de euros. Este importe se suma a los 1.000 millones de inversión que ya se contemplaban en los presupuestos ordinarios. La previsión es ejecutar el 90% este año y el resto en 2023.

-Cuatro: Plan Interinstitucional de inversiones estratégicas.

El 30 de marzo presentamos, junto a las Diputaciones Forales, el Plan interinstitucional de inversiones estratégicas para abordar la transición digital, verde y social. Este Plan contempla una inversión de 528 millones de euros y las instituciones vascas, Gobierno Vasco y Diputaciones Forales, ya hemos arrancado los proyectos emblemáticos con los que aspiramos a conseguir recursos europeos.

Las inversiones a ejecutar este año ascienden a 93 millones de euros.

-Cinco: Medidas de Rescate Económico y Rescate Social para hacer frente a los efectos de la guerra de Ucrania en las familias y las empresas.

El 8 de abril se celebró un Pleno monográfico sobre la situación en Ucrania y se aprobaron 44 resoluciones. Atendiendo estas resoluciones, el Consejo de Gobierno del 12 de abril aprobó un paquete de medidas valoradas en 200 millones de euros.

Por una parte, el Fondo Isuri, de Rescate social, con 15 millones adicionales que se encuentra en ejecución. Por otra parte, un Fondo complementario de 143 millones de ayudas directas para el rescate económico de actividades y sectores especialmente golpeados por el encarecimiento del precio de la energía y la ruptura de las cadenas de suministro. De esta cantidad se encuentran ya en ejecución 91 millones de euros. Por último, 40 millones adicionales para facilitar

la liquidez de las empresas, a través del Instituto Vasco de Finanzas y mediante operaciones complementarias con Elkargi.

Gobierno, Diputaciones Forales y el conjunto de instituciones vascas vamos a seguir compartiendo esta estrategia de respuesta, evaluando el resultado de las medidas adoptadas y poniendo en marcha si es necesario nuevas iniciativas.

Pandemiak eta Ukrainako egoerak eragin sakona izan dute eta ondorio luzeak ekarriko dituzte.

Jaurlaritzatik eta euskal erakundeetatik egoera kritiko horiek dituzten eraginak gertutik jarraituko ditugu, eszenatoki globala kontutan hartuz eta gertuko neurriak adostuz, ebaluatuz, onartuz eta martxan jarritz.

Herri Helburu bera partekatzen dugu: familiei babesa bermatu, jarduera ekonomikoa berpiztu eta enplegu aukerak sortzen lagundu.

Eskerrik asko eta, ondoren, Ahaldun nagusiak eta nik neuk ere zuen galderei erantzungo diegu.